

Itzulpen- eta berrikusketa- irizpideak

Erabakiak eta gomendioak

2023

IZO (Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala)

Itzulpen- eta berrikusketa-irizpideak

Atarikoa	3
Ortotipografia	4
— € sinboloa eta kasu-markak	4
— <i>arteko</i> ala <i>–arteko</i> ?	5
— Ehunekoen idazkera	6
— Ehuneko negatiboen idazkera	7
— <i>Hala nola</i>	8
— Itxierako marra luzeak tartekietan	9
— Letra larriak: arauen eta agiri ofizialen izenak	10
— Lege-aurreproiektuak eta -proiektuak	11
— Marratxoa hitz elkartuetan	12
— Ordinalak segida batean	13
— Siglak	14
— Sozietateak nola aipatu	15
— <i>Testu bategin</i> : letra xehez ala letra larriz?	17
Morfosintaxia	18
— <i>Behar(rezkoa) den...</i> eta <i>beharrezko...</i>	18
— <i>Berau, berori, bera</i>	19
— <i>Ebazpen bidez</i>	20
— <i>Fdo.</i> euskaraz	21
— <i>Honetaz/honez</i>	22
— <i>Izanagatik</i>	23
— <i>Jarraiki(z)</i>	24
— Karguen izenak, elipsirik gabe	25
— <i>Lehenengo, lehen</i> (artikulu, xedapen...)	26
— Nola erabili <i>bis</i>	27
— Nola idatzi: <i>hobetu dezaket</i> edo <i>hobe dezaket</i> ?	28
— Xedapenen izenak: letra larri eta xeheak aposizioetan	29
— <i>ZEIN</i> -erlatiboa	30
Testugintza	31
— <i>Agotar la vía administrativa</i>	31



— Aldizkari ofizialak nola aipatu	32
— <i>Ajustado a derecho</i>	33
— <i>Baitan eta barruan</i>	34
— <i>Betiere</i> adberbioa <i>baldin (eta)</i> indargarriaren ordezt?	35
— <i>Biharamunetik, hurrengo egunetik</i>	36
— Datu pertsonalei buruzko eskubideak	37
— <i>Ebazten dut, Xedatzen dut...</i> (performatiboak)	38
— <i>En nombre y representación</i>	39
— Helbideak	40
— <i>Honako hau</i> (kataforak)	41
— Huts-zuzenketa	42
— Izen berezi batez eta izen deskribatzaile batez osaturiko sintagmak	43
— Lege-izenak nola eman	44
— <i>Pertsona</i> hizkera inklusiboan	45
— <i>-ri dagokionez, -ren kasuan</i> alferrikakoak	46
— <i>Sin perjuicio</i>	47

Terminologia **48**

— <i>Administración pública</i>	48
— <i>Disposiciones</i>	49
— <i>Eficacia/eficiencia/efectividad</i>	50
— <i>Europar Batasunaren legegintzako egintzak izendatzeko irizpideak</i>	51
— <i>Encomienda de gestión</i>	52
— <i>Impacto (económico / de género / presupuestario...)</i> // <i>inpaktu / ondorio / eragin</i>	53
— <i>Jaurilaritzako Kontseilua ala Gobernu Kontseilua?</i>	54
— Nola izendatu lege-xedapenen zatiak?	55
— <i>Normativa comunitaria</i>	56
— <i>País Vasco</i> nola eman euskaraz	57
— Sektore publikoaren pertsonifikazio juridikoa	58
— <i>Tutela / autotutela / curatela</i> // <i>tutoretza / babes</i>	59
— <i>Vasco/Vasca</i>	60



Atarikoa

IZOren itzultzaile-taldeak 2016an argitaratu zituen lehenengo aldiz IZOren Itzulpen eta Berrikusketa Irizpideak. Hasieran, zerbitzuaren barruko koherentzia eta batasun linguistikoak sendotzea zen helburua, eta, gaur egun ere, hala da, baina berez-berez etorri zen irizpideon eskaintza IZOtik kanpo ere zabaltzea: lehenik eta behin, IVAPeko gainerako lankideak izan genituen gogoan; gero, Jaurilaritzako langileak, eta, azkenik, edozein administrazioan euskara lan-tresna ohikoa duen edonor.

Txosten hau eskaintza bat da, alde batetik, itzulpen-lanetako zailtasuna eta auzi ilunak argitzeko mesedegarri izango dena, eta exijentzia bat ere bai, bestetik, IZOren zigor daramaten itzulpen guztiek (IZOn bertan nahiz IZOtik kanpo eginak izan) gutxienezko bateratasun-irizpideak bete behar baitituzte, itzulpenak egokiak eta kalitatezkoak izango badira.

Zorionez, gero eta gehiago dira itzultzaileok eta zuzentzaileok eskura ditugun hiztegi arauemaileak, espezializatuak, kontsultaguneak eta hizkuntzarekin zerikusia duten lan-tresnak. Hori dela eta, ez zaigu beharrezkoa iruditu han-hemen eskuragarri dauden eta jakinekotzat jo daitezkeen argibideak ematea. Baina oro ez da urte, ezta dena arau finko ere. Alegia, oraindik lan ugari dago egiteko administrazio-arloko euskara finkatzeko, eta itzultzaile-zuzentzaileok zailtasuna asko izaten ditugu gure eguneroko lanean. Premia horri erantzuteko, funts-funtsezkoa da itzulpen- eta zuzenketa-lanetarako irizpideak adostea, betetzea eta betearaztea.

Irizpideon helmena zehazitzea komeni da: Euskaltzaindiaren erabakiek beren esparrua dute, izenen ofizialtasunak berea, erakundeek ere zeinek bere eskumenak egikaritzen ditu... Horiek guztiak aintzat hartzen ahalegindu gara, nahiz eta jakitun izan irizpideak, izatez, behin-behinekoak direla eta halaxe izango direla beti, esan nahi baita etengabe eguneratu beharreko irizpideak direla.

Kontuan hartu, baita ere, txosten honetako irizpideak IZO 2025eko martxora arte hartutakoak direla. Aurrerantzean ere bide honetatik segitzeko asmoa dugunez, dokumentu hau elikatzen jarraituko dugu, baita osatu eta zuzendu ere; tenorea denean, bertsio eguneratua jarriko dugu Interneten, orain egin dugun bezala.

Manu Arrasate, Itzultzaile Zerbitzu Ofizialeko arduraduna
Lakua, 2025eko martxoaren 17a



Ortotipografia

€ sinboloa eta kasu-markak

Adibidez: 100 €-tik gorakoak, 100 €tik gorakoak ala 100 eurotik gorakoak.

IZOren erabakia

Irizpide orokorra: 100 eurotik gorakoak erabiltzea.

Baina kasuan-kasuan ikusi behar da zein komeni den; izan ere, grafikoetan-eta litekeena da € idatzi behar izatea. Nolanahi ere, € zeinua sinboloa da, eta horregatik, erabiliz gero, marra idatzi behar da zeinuaren eta atzizkiaren artean.

Oro har, euro letraz idaztea gomendatzen dugu, ez sinboloz. Baina € sinboloa idatzi behar denean, atzizkia erantsi behar izanez gero, marra idatzi behar da zeinuaren eta atzizkiaren artean.



arteko ala –arteko?

Nola eman euskaraz, esaterako, *interdepartamental*?

IZOren erabakia

Hiru aukera daude: *sailarteko*, *sail arteko* edo *sailen arteko*.

Badirudi Euskaltzaindiak lehen aukeraren aldeko apustua-edo egina duela, baina beste bi aukerak ere egokiak eta zuzenak dira, kasuan kasu.

Ez da onargarria tartean marratxoa idaztea (*sail-arteko*).

Hiru aukera daude: *sailarteko*, *sail arteko* edo *sailen arteko*





Ehunekoen idazkera

Nola idatzi eta komunztatu behar dira ehunekoak, sinbolo bidez ematen direnean?

IZOren erabakia

1. Hutsartea: zuriune bat utziko da % sinboloaren eta zenbakiaren artean.
2. Mugagabea erabili behar da (salbuespena egiten da *gainerako*, *beste* eta gisako elementuren bat daramanean: *gainerako/beste % ..a*).
3. Erreferentea plurala bada, komunztadura pluralean.

Gazteen % 56k ez dute irakurtzeko ohiturarik idaztea gomendatzen da



Ehuneko negatiboen idazkera

Ehuneko negatiboak nola idatzi behar ditugun da auzia.

Alegia: -%23,5 ala % -23,5? (hots, non eta nola erabili marratxoa?)

IZOren erabakia

Ehuneko negatiboak honela idatzi behar dira: -% 3

Zehazki, kopuruaren ezkerraldean sinboloa eta bien artean hutsune bat utziko da, baina hutsune hori zatiezina izango da.

Euskaraz, minus zeinurik gabe % 3 denez, -% 3 idatziko da, eta «minus ehuneko hiru» irakurriko da. Dena dela, minus zeinua (–) eta % unitate-sinboloa elkarren alboan idatzi behar dira, hutsarterik gabe. *Zientzia eta teknikako euskara arautzeko gomendioak* (EIMA, 2011, 89. or.).

Marratxoa idazteko hiru aukera daude:

[–] marratxo bakuna (kenketa, hitz-elkarketa),

[–] marratxo bikoitza (minus),

[—] marratxo laukoitza (marra luzea).

Horixe izaten da nahaste-iturria. Hala ere, minus adierazteko zeinua hau izango da: [–] Ctrl + - (zenbakizko teklatura).

Hain zuzen, minus zeinua tarte bikoitzeko marratxoaz adierazten da: –5

Ehuneko negatiboak honela idatzi behar dira: -% 3





Hala nola

Erabil daiteke *adibidez*, *esate baterako* eta abarren sinonimo gisa?

IZOren erabakia

Zentzuz horien sinonimoa bada ere, bestelako puntuazioa eskatzen du: aurretik koma eta atzetik ezer ez.

*Fruta tropikalak gustatzen zaizkio, **hala nola** kiwia, anana eta mangoa.*

Adi: gaztelaniazko emendiozko «*así como*» esapidea ezin da *hala nola* itzuli, kalko desegokia da.

Jaurlaritzako lehendakaria eta Gasteizko alkatea bildu ziren, **hala nola atzeritik etorritako hainbat ordezkari.*

*Jaurlaritzako lehendakaria eta Gasteizko alkatea bildu ziren, **bai eta** atzeritik etorritako hainbat ordezkari ere.*

Aurretik koma batez eta atzetik ezer gabe idatzi behar da *hala nola* esapidea, *adibidez* edo *esate baterako* esan nahi duenean



Itxierako marra luzeak tartekietan

Tartekietako itxierako marra luzea, paragrafo baten bukaeran badago, idatzi behar da?

IZOren erabakia

Tartekietan, itxierako marra luzea ez da ezabatuko, nahiz eta paragrafo baten amaieran egon. Besteak beste, RAEk eta Fundéuk hala egitea gomendatzen dute, gaztelaniarako. Guk euskararako berdin jotzea proposatzen dugu.

Tartekietan, itxierako marra luzea ez da ezabatuko, nahiz eta paragrafo baten amaieran egon





Letra larriak: arauen eta agiri ofizialen izenak

Arau eta agiri ofizialek izen luzeak badituzte, letra larriz edo xehez idatzi behar dira aurreneko letrak?

IZOren erabakia

Guk ere, sei hitz nagusitik gorako aipamenetan, lehenengo hitzeko letra bakarrik idatziko dugu larriz. Hortik beherakoetan, berriz, denak idatziko dira larriz.

Hala ere, batzuetan horrekin ez da aski izaten, eta hitzen kategoria eta testuingurua aintzakotzat hartu beharra dago.

**Sei hitzetik gorako aipamenetan, lehenengo hitza bakarrik larriz.
Sei hitz edo gutxiagoko aipamenetan, denak larriz.**





Lege-aurreproiektuak eta -proiektuak

Nola idatzi behar da euskaraz *lege-aurreproiektua*, biak xehez eta marra tartean?

IZOren erabakia

Oinarrizko Hiztegi Juridiko Parlamentarioan lege-aurreproiektu eta lege-proiektu agertzen dira.

Nolanahi ere, bi egoera ezberdindu nahi ditugu:

1. Modu generikoan erabiltzen direnean. Adibidez:
 - *Lehendakariak esan du lege-proiektu bat prestatzeko beharra dagoela.*
2. Lege jakin baten izenari lotuta agertzen direnean. Adibidez:
 - *Hirigintza Legearen proiektua aurkeztu dute gaur goizean.*

Modu generikoan erabiltzen direnean, *lege-aurreproiektu* eta *lege-proiektu* erabiltzea gomendatzen dugu.
Hau da, dena letra xehez idatzita eta hitzak marratxo bidez lotuta.

Lege jakin baten izenari lotuta agertzen direnean, berriz, *Legearen proiektua* eta *Legearen aurreproiektua* egitea gomendatzen dugu. Alegia, *lege* hitzaren lehenengo letra, larria; bigarren hitzaren lehenengo letra, xehea; hitzak genitiboaren bidez lotuta idazteko gomendioa ematen dugu.



Marratxoa hitz elkartuetan

Marratxorik idatzi behar al da hitz elkartuetan? Maiuskulaz idatzitako testuetako hitz elkartuetan ere bai? Eta maiuskulaz hitz elkartuen osagaien lehenengo letra bakarrik ematen denean?

IZOren erabakia

Euskaltzaindiak aukeran utzitako kasuetan, marratxoa erabiliko dugu.

Hobespen orokor horren salbuespen gisa, badira hitz batzuk elkarketaren bigarren osagai izateko joera dutenak. Halakoak bereiz idaztea hobesten dugu. Hiru azpisailetan banatu daitezke (*sorta*, *puska* eta *mota*):

- . **lore sorta** ereduko **multzo-elkarteak**; alegia, bigarren osagaia honelakoren bat dutenak: *aldra*, *andana*, *bikote*, *ilara*, *kantitate*, *kopuru*, *mordo*, *multzo*, *oste*, *pare*, *pila*, *sail*, *sorta*, *talde*, *tropel*...
- . **ogi puska** ereduko **zati-elkarteak**; alegia, bigarren osagaia honelakoren bat dutenak: *ale*, *apur*, *atal*, *atomo*, *ioi*, *izpi*, *molekula*, *pittin*, *pixka*, *poxi*, *puska*, *pusketa*, *tanta*, *zati*...
- . **eskola mota** ereduko **molde-elkarteak**; alegia, bigarren osagaia honelakoren bat dutenak: *era*, *fase*, *klase*, *modu*, *molde*, *mota*...

Maiuskulaz idatzitako testuetan, minuskulaz idatzita baleude bezala jokatzeari gomendatzen da, marratxoari dagokionez.

Hizkuntza-politikarako gidalerroak idazten duenak, adibidez, maiuskulaz **HIZKUNTZA-POLITIKARAKO GIDALERROAK** idatzi beharko luke.

Hitz elkartuen osagaien lehenengo letra bakarrik maiuskulaz ematen denean, ez da komeni marratxoa idaztea: **IRIZPIDE-BATZORDEA** edo *irizpide-batzordea*, baina *Irizpide Batzordea*

Euskaltzaindiak hitz elkartuetan aukeran utzitako kasuetan, marratxoa erabiltzea gomendatzen da, salbuespenak salbuespen, eta, maiuskulaz idatzitako testuetan, berriz, minuskulaz idatzita baleude bezala jokatzeari.

OHARRA (EIMA bildumako Ortotipografia liburuaren 67. orrialdea, Joxe Ramon Zubimendi):

Esanahi bat baino gehiago izan dezaketen *sorta*, *puska* edo *mota* ereduetako hainbat hitz-elkarte ez dira *eguzki-lore* arruntetatik bereizten errazak. Adibidez, *neska taldeak* neska **asko** adierazten du; baina *zuzendaritza-taldeak* ez du zuzendaritza **asko** adierazten, zuzendaritzaz arduratzen den **taldea** baizik; eta *futbol-taldeak* ere ez du futbol **asko** adierazten, futboleko jokatzen duen **taldea** baizik. Beraz, *eguzki-lore* moduko hitz-elkarte arruntak dira *zuzendaritza-talde* eta *futbol-talde* gisakoak, eta, gure proposamenaren, marratxoz lotuta idaztekoak.

Antzeko arrazoiengatik, aukeran uzten da bigarren osagaitzat *maila* (edo *gradu*) daramaten elkarteak marratxoz lotuta idaztea.



Ordinalak segida batean

Adibidez: 9, 10 eta 11. *espedienteak* (edo *espedienteak*?) ala 9., 10. eta 11. *espedienteak* (edo *espedienteak*?)

IZOren erabakia

Irizpide orokorra: puntua, eta gero koma, eta izena pluralean (singularra ere zuzena izan arren); alegia: 9., 10. eta 11. *espedienteak*.

Ordinalaren *-garren* atzizkia aldiro eta beti adierazi beharko da (letraz nahiz puntuz) elkarren segidan datozen zenbaki bati baino gehiagori dagokienean.

Ordinalaren *-garren* atzizkia aldiro eta beti adierazi beharko da elkarren segidan datozen zenbaki bati baino gehiagori dagokienean, eta zenbaki horiekin izen bat badoa, izen hori pluralean idaztea gomendatzen dugu



Siglak

LOFCA, LOAPA eta antzeko lege-izenen erdarazko sigla ezagunak itzuli behar dira euskaraz? Legearen aipamen osoa euskaraz egin? Bere horretan utzi?

Eta, gaztelaniazko lege-izenekin ez ezik, erdara horretako beste edozein terminorekin ere nola jokatu behar da euskarazko itzulpenetan, gaztelaniaz forma osoa eta sigla erabiltzen badituzte? Adibidez, *alumnado de reciente incorporación* terminoa agertu zaio itzultzaile bati, eta, forma osoarekin batera, sigla ere bai (ARI). Zer egin horrelakoetan? Sigla (ere) eman ala ez?

IZOren erabakia

Arlo horretan kasuistika handia dagoenez, ezin da eman kasu guztietarako balio duen erantzunik. Izan ere, kasu batzuetan errespetatu egiten da erdarazko akronimoa: RENFE, IVAP...; beste batzuetan, ez: NBE, OME...

Ikusi behar da nolako tradizioa duten sigla horiek gure memorietan. Erdarazko akronimoa, oso finkatuta badago, euskaraz ere erabiliko dugu (forma ihartua balitz bezala jokatu dugu); euskarazkoak bere bidetxoa egina badu, horixe erabiliko dugu. Nolanahi ere, berria edo ezezaguna bada, komeni da lehen agerraldian forma osoa idaztea siglarekin batera.

Gomendatzen dugu, hala ere, ahal denik eta sigla gutxien asmatzen ibiltzea, siglek askotan testuak ulergaitzago egiten dituzte eta. Siglak ondo daude erakunde edo instituzio jakin batzuk labur-labur izendatzeko, baina ezin onartuzkoa iruditzen zaigu edozein izendapen arrunt siglaz ordezte.

Ezin da arau orokorrik eman: kasu batzuetan, errespetatu egiten da erdarazko akronimoa (RENFE, IVAP...); beste batzuetan, ordea, ez (NBE, OME...). Sigla horien tradizioa nolakoa den ikusi behar da, erdarazkoa ala euskarazkoa erabili behar dugun erabakitzeko.
Ahal denik eta sigla gutxien asmatzea gomendatzen dugu.



Sozietateak nola aipatu

A) Sozietateak oro har aipatzeko

Euskaltzaindiaren 196. arauak dioenaren arabera, sozietate motak laburtu behar direnean, erabilgarriagoa da sigla erabiltzea, kasu-markak hartzeko erosoagoa baita sigla laburdura baino. Beraz, Euskaltzaindiaren gomendioa kontuan hartuta, sozietate motak honela idatziko ditugu:

sozietate anonimoa: SA

sozietate mugatua: SM

kooperatiba-sozietatea: KS

kooperatiba-sozietate txikia: KST

kooperatiba-sozietate europarra: KSE

Hain ezagunak ez diren horietan (KST, KSE), hasieran siglekin batera izen osoa idaztea komeni da, kontuan hartuta testuingurua zein den eta abar.

Bestalde, siglak direnez, punturik gabe idazten dira.

Sozietate motak orokorrean aipatzean, euskarazko sigla behar dugunean, hauek erabiliko ditugu, punturik gabe: SA, SM, KS eta abar

B) Sozietate jakin bat izendatzeko (erregistroan inskribatuta dagoen izena, bere horretan)

Gure testuetan, behin eta berriz agertzen zaizkigu sozietate jakin batzuen izenak (batik bat, EHAA n argitaratzekoak):

Verter Recycling, S.L.

Suministros Loinaz, S.A.

Ampo, S.Coop.

(...)

Orain arte, Euskaltzaindiaren gomendioan oinarrituta hartuta geneukan erabakiari jarraikiz, sozietate-izenen laburtzapen horiek itzuli egin ditugu, eta sigla moduan eman ditugu, punturik gabe eta sozietate-izenaren eta siglaren artean komarik jarri gabe (adibidez, Verter Recycling SM).

Baina zalantza sortu zaigu laburtzapena (gaztelaniaz, gehienetan, laburdura izan ohi da, nahiz eta gaur egun sigla ere erabil daitekeen) ez ote den sozietate-izenaren parte, alegia, erregistroan inskribatuta dagoen izenari bere horretan eutsi behar ote litzaiokeen. IVA Peko aholkulari juridikoei galdetu diegu, eta hau erantzun digute, arloko adituei kontsulta egin ondoren: laburtzapena izenaren parte da, eta, beraz, segurtasun juridikoaren izenean, erregistroan inskribatuta dagoen izena bere horretan utzi behar da euskarazko bertsioan ere.

Hori kontuan hartuta, hemendik aurrera, itzulpen batean enpresa edo sozietate jakin baten izena agertzen bazaigu, laburtzapena ez dugu itzuliko: jatorrizko izenean bezalaxe utziko dugu, puntu eta guzti (S.L.). Izenaren eta laburduraren arteko komari dagokionez, berriz, “lizentziatxoa” hartuko dugu: koma hori ez dugu



ipiniko, nahasgarria gertatzen delako esaldiaren barruan (Verter Recycling S.L.). Nolanahi ere, enpresen izenak zerrenda batean agertzen zaizkigunean (sarritan, EHAAko eranskinetan), izenaren eta laburduraren arteko koma horri eutsi egingo diogu, ez baitu trabarik egiten.

Bestalde, kasu-marka erantsi behar denean, ez da marratxorik jarri behar puntuaren eta kasu-markaren artean (Verter Recycling S.L.ren estatutuak...).

Sozietate jakin bat aipatzean, haren izen osoa jatorrizko testuan azaltzen den moduan utziko dugu, itzuli gabe, eta ez dugu tarteko komarik jarriko: Verter Recycling S.L. (izena zerrenda batean agertzen bada, komari eutsiko zaio). Bestalde, kasu-marka eranstean, ez da marratxorik jarri behar (Verter Recycling S.L.ren estatutuak...).



Testu bategin: letra xehez ala letra larriz?

Nola da euskaraz: *testu bategina* ala *Testu Bategina*?

IZOren erabakia

Testu bategina arau juridiko mota bat da, zeinak batzen baititu arlo jakin bat arautzeko banaka eta elkarren segidan aurretik eman diren maila bereko arauak.

Izen arrunta denez, eta *Oinarrizko Hiztegi Juridiko Parlamentarioan* jasota dagoen agerraldiaren arabera, letra xehez idatziko dugu, *testu artikulatua* eta *testu kontsolidatua* bezalaxe¹.

Ez dugu *Testu Bategin* idatziko, *testu bategin* baizik

¹ Dena dela, *testu bategin*, *testu artikulatu* eta *testu kontsolidatu* esapideak gaiari buruzko zatikoak baldin badira xedapenetan, letra larriz idatziko ditugu, xedapenaren gaiak zazpi hitz edo gehiago dituenetan izan ezik.



Morfosintaxia

Behar(rezkoa) den... eta beharrezko...

Beharrezko adjektiboa ondo erabilia dago, gaztelaniaz *necesarios* edo *pertinentes* izen baten ondoan doanean?

IZOren erabakia

Beharrezko adjektiboa eta *behar(rezko) d(ir)en* erlatiboa baliokide izan daitezke, baina zaila dirudi adjektibo moduan erabiltzen den kasuan ezker-osagarririk hartzea. Horren ordezt, egokiagoa da erlatibora jotzea.

Ez:

- Irizpideak finkatzeko **beharrezko** erabakiak.
- Softwarea instalatzeko **beharrezko** baliabideak.
- Horretarako **beharrezko** baliabideak.

Bai:

- Irizpideak finkatzeko **behar diren** erabakiak.
- Softwarea instalatzeko **behar diren** baliabideak.
- Horretarako **behar diren** baliabideak.

***Beharrezko* izen baten adjektibo gisa erabiltzen denean, ezin du ezker-osagarririk hartu. Halakoetan, *behar(rezko) d(ir)en* erlatibora jotzea gomendatzen da.**



Berau, berori, bera

Sarri, gurean itzultzen eta zuzentzen ditugun testuetan erakusleak erreferente direnean, nahasmen handia izaten da, erreferente horien aipamena egitean ez baitakigu izenburuan ageri diren hiru horietatik (berau, berori, bera) zein erabili.

Nahasmen horren ondorioz, honelakoak ageri zaizkigu maiz:

- *Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, **haren** aurka, interesdunek gora jotzeko...
- *Ebazpen horrek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, **beronen** aurka, interesdunek gora jotzeko...

IZOren erabakia

Halakoak ebazteko asmoz, eta zuzentasuna eta batasuna bultzatze aldera, hona hemen hobesten dugun erabilera:

- Erreferentea 1. gradukoa bada: hau > berau / honek > beronek...
- Erreferentea 2. gradukoa bada: hori > berori / horrek > berorrek...
- Erreferentea 3. gradukoa bada: haren > beraren / hark > berak...

Oharra: nolanahi ere, *hau berau* eta *hori berori* joskeren lekuan, graduaren neutralizazioz, *hau bera* eta *hori bera* ere erabil daitezke.

Hortaz:

1. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen/beraren aurka, interesdunek gora jotzeko...
2. Ebazpen horrek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, berorren/beraren aurka, interesdunek gora jotzeko...
3. Ebazpen hark amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko...

Erreferentea 1. gradukoa bada: hau > berau / honek > beronek...

Erreferentea 2. gradukoa bada: hori > berori / horrek > berorrek...

Erreferentea 3. gradukoa bada: haren > beraren / hark > berak...



Ebazpen bidez

Erabat erabiltzen ditugu administrazio-testuetan *ebazpen bidez*, *ebazpen baten bidez*, *ebazpenaren bidez*... Zalantza sortzen zaigu, ordea, izenlaguna hartzen duenean *ebazpen bidez* zuzena ote den. Adibidez:

*Natura kontserbatzeko bankuak **Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren ebazpen bidez** sortzen dira, edo **autonomia-erkidegoen ebazpen bidez**, hala dagokionean.*

Izan ere, ez genuke esango *gure ebazpen bidez*, baizik eta *gure ebazpen baten bidez*, *gure ebazpenaren bidez*... Horren haritik, beraz, honela jarriko genuke aurreko adibidean:

*Natura kontserbatzeko bankuak **Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren ebazpen baten bidez** sortzen dira, edo **autonomia-erkidegoen ebazpen baten bidez**, hala dagokionean.*

Halakoetan, zer dagokion, *ebazpen baten bidez*, *ebazpenaren bidez*, *ebazpenen bidez* erabiltzea gomendatzen dugu. Tartean izenlagunik ez denean, noski, zuzentzat daukagu *ebazpen bidez*.

Hau da, beraz, IBIL lantaldearen erabakia:

Ez dugu gomendatzen *ebazpen bidez* erabiltzea izenlagunarekin batera, baizik eta *ebazpen baten bidez*, *ebazpenaren bidez*...



***Fdo.* euskaraz**

Nola da *Fdo.* euskaraz?

IZOren erabakia

Dokumentuen amaieran maiz agertzen zaigun gaztelaniazko *Fdo.* hori era askotara ikus dezakegu euskaraz: *Sin.*, *Izta.*, *Izpta...*

Euskaltzaindiaren 196. araua hartuko dugu kontuan, zeinak *izpta.* (izenpetuta) eta *izptz.* (izenpetzailea) onartzen baititu.

Izptz. = izenpetzailea
Izpta. = izenpetuta



Honetaz/honez

Nahastea dabil, oro har, *honetaz gain / honez gain* —eta, are, *honezaz gain*— formen artean. Zein da zuzena eta zein okerra?

IZOren erabakia

Euskaltzaindiak Jagonet zerbitzuan argi uzten du, baina komeni da gogoratzea: hirurak zuzenak dira postposizio moduan doazenean; ez, ordea, beste kasuetan.

horretaz gain / horrez gain / horrezaz gain, hirurak dira zuzenak.
Erne, hala ere: etxe horretaz mintzatu gara zuzena da, baina *etxe horrez mintzatu gara ez.



Izanagatik

Bi esaldi hauetatik, zein da arauzkoa?

- a) *Irabazi izanagatik, kopa eman didate.*
- b) *Irabazi izanagatik, **ez didate eman kopa.***

IZOren erabakia

Lehenengoaren modukoak asko zabaldu dira azken boladan, nahiz eta tradizioz ez izan. Badirudi halako *premia* bat sentitu dela aspektu burutua markatzeko, burutugabearen aldean. Baina ez dira onargarriak.

izanagatik kontzesiboa da, ez kausala

- a) Irabazteagatik, kopa eman didate.***
- b) Irabazi izanagatik, ez didate eman kopa.***
**Irabazi izanagatik, kopa eman didate.*





Jarraiki(z)

Irizpide horri jarraiki erabaki dugu ala Irizpide horri jarraikiz erabaki dugu?

IZOren erabakia

Jarraikiz behar du. Izan ere, *poliki*, *arinki* eta gisa horretako moduzko adberbioekiko analogiaz hasi zen erabiltzen *jarraiki* gerundio moduan, eta gaur egun ere indar handia du erabilera oker horrek. Beraz:

Zuzen: *Ibaiari jarraikiz iritsi ziren portura.*

Oker: *Ibaiari jarraiki iritsi ziren portura.*

***Jarraikiz edo jarraituz bai
Jarraiki ez (partizipioa ez bada)***



Karguen izenak, elipsirik gabe

Kultura sailburua ala Kulturako sailburua?

Ohituraz elipsi bidez lotu badira ere (*Kultura sailburua*), hori, berez, aposizio gisa ulertu beharko litzateke (“Kultura” izena duen sailburua), eta, hortaz, egokiagoa da izenlagun-atzizki eta guzti idaztea.

IZOren erabakia

Karguen izenetan, sailaren edo arloaren izenarekin badoaz, ez da egingo mugatzaileak daraman kasu-markaren elipsirik, eta hitz horren lehenengo letra larriz idatziko da, eta mugakizuna, bigarren hitza, letra xehez.

Kulturako sailburua, Ekonomia eta Ogasuneko sailburua eta abar idatziko ditugu



Lehenengo, lehen (artikulu, xedapen...)

Zer egin honelakoetan?

Lehenengo xedapen gehigarria
Azken xedapenetako **lehen**a

Biak zuzenak izanda ere, Itzulpen eta Berrikusketa Irizpideen Lantaldeak (hemendik aurrera, IBIL lantaldea) *lehenengo* hobesten du, denok modu berean jokatu dezagun. Beraz,

Lehenengo erabiliko dugu bi kasuetan:
Lehenengo xedapen gehigarria
Azken xedapenetako **lehenengo**a





Nola erabili *bis*

***Bis* nola erabili artikuluen, xedapen gehigarrien, xedapen iragankorren eta azken xedapenen izenetan**

Zalantzak sortzen zaizkigu artikuluen, xedapen gehigarrien, xedapen iragankorren eta azken xedapenen izenetan *bis* erabiltzeko orduan. Nola beharko luke? *1 bis artikulua*, *1. bis artikulua*, *1. artikulua bis...*?; *lehenengo bis xedapen gehigarria*, *lehenengo xedapen gehigarria bis*, *1 bis xedapen gehigarria...*?; *azken xedapenetako lehenengoa bis*, *1 bis azken xedapena*, *1. bis azken xedapena...*?

Batetik, *bis* izenburuetan eta testu barruan erabili behar denean, hurrenkera honetan emango dugu: *1 bis artikulua*, *1 bis xedapen gehigarria*, *1 bis xedapen iragankorra* eta *1 bis azken xedapena*. Bestela jokatzeko gero, hau da, *bis* bukaeran emanez gero (*1. artikulua bis*), arazoak sortzen dira testuan txertatzeko orduan, *bis* partikulak hartu beharko bailuke kasu-marka (*1. artikulua bis-ean dioenez?*).

Bestetik, *Euskara Batuaren Eskuliburuaren* arabera, *bis* erabiltzen dugunean ez dago lekurik ordinalentzat. Hau da, ezin du hartu ordinala izenlaguntzat: *6 bis artikulua* behar du, eta ez *6. bis artikulua*. Adibide hori bat dator, gainera, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n jasotakoarekin: *29 bis irudia*.

Hauxe da, beraz, IBIL lantaldearen erabakia:

Artikuluen, xedapen gehigarrien, xedapen iragankorren eta azken xedapenen izenetan, honela erabiliko dugu *bis*:

Artikuluetan: *1 bis artikulua*, *2 bis artikulua...*

Xedapen gehigarrietan: *1 bis xedapen gehigarria*, *2 bis xedapen gehigarria...* (letraz erabili behar izanez gero: *Bat bis xedapen gehigarria*, *Bi bis xedapen gehigarria...*)

Xedapen iragankorretan: *1 bis xedapen iragankorra*, *2 bis xedapen iragankorra...* (letraz erabili behar izanez gero: *Bat bis xedapen iragankorra*, *Bi bis xedapen iragankorra...*)

Azken xedapenetan: *1 bis azken xedapena*, *2 bis azken xedapena...* (letraz erabili behar izanez gero: *Bat bis azken xedapena*, *Bi bis azken xedapena...*)



Nola idatzi: *hobetu dezaket* edo *hobe dezaket*?

IZOren erabakia

Aditza beste kategoria batetik eratortzen denean eta jatorrizko oinarritik ezertan bereizten ez denean, *-tu (-du)* forma osoa erabiliko da (*hobetu dezaket*, eta ez *hobe dezaket*)



Xedapenen izenak: letra larri eta xeheak aposizioetan

Xedapenen izen osoa, askotan, aposizioen bidez ematen dugu: lehenik, zenbakia; bigarrenik, data; hirugarrenik (baina ez beti), xedapena eman duen erakundea, eta, azkenik, gaia. Maiz, zalantza egiten dugu gaiari buruzko zati aposatuan hitz nagusiak letra larriz edo xehez hasita idatzi behar ote ditugun. Hauxe da, beraz, IBIL lantaldearen erabakia:

Xedapenen izena aposizioen bidez ematen denean, larriz hasita idatziko ditugu gaiaren ataleko hitz nagusiak.

Adibidez:

2/2011 Legea, martxoaren 17koa, Ehizarena

509/1996 Errege Dekretua, martxoaren 15ekoa, Hiriko Hondakin Uren Tratamenduari buruzkoa

Hiru salbuespen egingo ditugu:

1. Gaiaren atalak **zazpi hitz nagusi edo gehiago dituen**². Halakoetan, lehenengo hitza bakarrik idatziko dugu letra larriz hasita.

Adibidez:

178/2002 Dekretua, uztailaren 16koa, Edateko uraren kalitatea kontrolatzeko eta zaintzeko nahiz horri guztiari buruz informatzeko sistema arautzen duena.

2. **Katafora erabiltzen denean.**

Adibidez:

40/2022 Legea, urtarrilaren 12koa, errege-dekretu hau aldatzen duena: 634/2021 Errege Dekretua, uztailaren 26koa, Gobernuko Presidentetza Berregituratzen duena.

3. **Zeinaz, zeinaren bidez eta gisa horretako erlatiboak erabiltzen direnean.**

Adibidez:

Ebazpena, 2022ko urtarrilaren 12koa, Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaz 8 kg edo gehiagoko eta 20 kg baino gutxiagoko edukierako ontzietan ontziratutako petrolio-gas likidotuen gehieneko salmenta-prezio berriak argitaratzen baitira, zergak aplikatu aurrekoak, kanpoan utzita petrolio-gas likidotuak erregai gisa erabiltzeko nahaste-ontziak.

² Euskaltzaindiaren [200. araua](#)ri jarraikiz, hauek dira hitz nagusiak: “Izenak, adjektiboak (izenlagunak eta izenondoak), izenordainak, erakusleak, zenbatzaileak, aditzak (aditz-izen eta partizipioak) eta adberbioak. Aldiz, juntagailuak, lokailuak, postposizioak, adizkiak eta beste partikula batzuk (*ote, al...*) ez dira nagusitzat hartzen, semantikoki”. Hala ere, onar daiteke bereizketa horretatik kanpoko kasurik, eduki semantikoak edo enfasiak justifikatzen badute. Adibidez:

- Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsari buruzko Foru Legea
- Ingurumena Babesteko Legea
- Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen Legea



ZEIN-erlatiboa

Egokia da ZEIN-erlatiboa erabiltzea gure itzulpenetan?

IZOren erabakia

Gaia azterturik, ikusi dugu baietz, egokia dela ZEIN-erlatiboa erabiltzea. Horretarako, paradigma hau erabiltzea gomendatzen dugu:

Kasua	Mugatu singularra	Mugatu plurala
Absolutiboa	Zeina	Zeinak
Partitiboa		
Ergatiboa	Zeinak	Zeinek
Datiboa	Zeinari	Zeinei
Inesiboa	Zeinean	Zeinetan
Leku-denborazko genitiboa	Zeineko ³	Zeinetako
Adlatibo soila	Zeinera	Zeinetara
Hurbiltze-adlatiboa	Zeinerantz	Zeinetarantz
Muga-adlatiboa	Zeineraino	Zeinetaraino
Ablatiboa	Zeinetik	Zeinetatik/Zeinetarik
Edutezko genitiboa	Zeinaren	Zeinen
Soziatiboa	Zeinarekin	Zeinekin
Instrumentala	Zeinaz	Zeinez
Motibatiboa	Zeina(ren)gatik	Zeinengatik
Destinatiboa	Zeinarentzat/Zeinarendako	Zeinentzat/Zeinendako
Prolatiboa		

ZEIN-erlatiboa erabil daiteke gure itzulpenetan, mugatuan

³ Orotariko *Euskal Hiztegia*n, lekuzko kasuetan ez da aurkitzen *zeineko*, *zeinera*, *zeinetik*... moduko forma mugaturik. Bai, ordea, *zeinean* (edo *non*). Ikus: Xabier Alberdi & Julio García (*Euskera* XLII, 1997, 349-357).



Testugintza

Agotar la vía administrativa

Hainbat modutara ikusten da *agotar la vía administrativa* euskaraz: *administrazio-bidea agortu, bukatu, amaiera eman...* Zein da egokiena?

IZOren erabakia

Agotar la vía administrativa: *administrazio-bideari amaiera eman* edo *administrazio-bidea amaitu*.

Bi esaldi hauek zuzenak eta egokiak dira:

- *Ebazpen honek amaitu egiten du administrazio-bidea*
- *Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari*

***agotar la vía administrativa
administrazio-bideari amaiera eman
edo
administrazio-bidea amaitu***



Aldizkari ofizialak nola aipatu

Nola aipatu behar da aldizkari ofizial bateko zenbaki jakin bat?

IZOren erabakia

Guk honela egitea proposatzen dugu: lehenengo, data; gero, aldizkari ofizialaren izena; bukatzeko, zenbakia.

Adibidez:

- 2011ko uztailaren 3ko EHAA, 130. zk.
- 2015eko maiatzaren 5eko GAO, 98. zk.

Gomendio honek ez du balio esaldi barruko aipamenetarako, halakoetan osagaien hurrenkera beste era batera antolatu behar da eta.

Aldizkari ofizialak honela aipatzea gomendatzen dugu: lehenengo, data; gero, aldizkari ofizialaren izena; bukatzeko, zenbakia. Esaterako:

***BOPV número 130 de 3 de julio de 2011
2011ko uztailaren 3ko EHAA, 130. zk.***



Ajustado a derecho

Ajustado a derecho hainbat modutan ikusten da itzulita: *zuzenbidearen arabera*, *zuzenbideari lotuta*... Zer formula da egokiena?

IZOren erabakia

Ajustado a derecho = *zuzenbidearen arabera*koa.

No ajustado a derecho = *zuzenbidearen kontrakoa*.

Aipatu behar da *zuzenbidea* eta *derecho* hitzen lehenengo letra txikiz idaztea gomendatzen dugula.

***ajustado a derecho = zuzenbidearen arabera*koa
*no ajustado a derecho = zuzenbidearen kontrakoa***



Baitan eta barruan

Zein da bien arteko desberdintasuna?

IZOren erabakia

Baitan: gehienbat izaki bizidunekin erabili behar da
Barruan: izaki bizidunentzat nahiz izaki bizigabeentzat balio du



***Betiere* adberbioa *baldin (eta)* indargarriaren ordezt?**

Azken urteetan, baldintzazko esaldietan erruz zabaldu da *betiere* adberbioa erdarazko *siempre que* eta *siempre y cuando* lokuzioen ordain gisa erabiltzeko joera, baldintza oraindik gehiago markatzen edo indartzen duelakoan, baina gehienetan — beti?— aski da *baldin (eta)* indargarria jartzea horretarako, orain arte egin izan den moduan, *ba-* soila nahikotzat jotzen ez badugu. *Orotariko Euskal Hiztegiari* erreparatuz gero, ematen du *betiereren* erabilera hori berri samarra eta alferrekoa dela. Nolanahi ere, Euskaltzaindiak onartua du.

Hau da, beraz, IBIL lantaldearen erabakia:

Ez dugu gomendatzen baldintzazko perpausetan *baldin (eta)* indargarriaren ordezt *betiere* erabiltzea



Biharamunetik, hurrengo egunetik

Nola esan behar dugu *al día siguiente a su publicación...*?

IZOren erabakia

Bateratzearren, guk testuinguru horretan *argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera* egitea erabaki dugu. Horrek ez du esan nahi *biharamun* erabiltzea zilegi jotzen ez dugunik.

Argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera egitea gomendatzen da



Datu pertsonalei buruzko eskubideak

Datuak Babesteko (EB) 2016/679 Erregelamenduak aukera ematen dio herritar orori bere datu pertsonalen gaineko zenbait eskubide egikaritzeko. Horregatik, aukera horretaz baliatzeari buruzko ohar bat txertatzen da hainbat administrazio-dokumentutan, denok berdin antzean eman beharko genukeena. Letra lodiz eskubideak agertzen dira, legez hala behar luketenak. Testua era batera edo bestera jos daitekeen arren, hauxe da gure proposamena:

*Las personas interesadas podrán ejercitar los **derechos de acceso, rectificación, supresión y portabilidad de sus datos, así como la limitación u oposición a su tratamiento**, enviando comunicación escrita en este sentido a...*

Interesdunek eskubidea dute beren datuak **irispidean izateko, zuzentzeko, ezerezteko eta eramateko**, bai eta beren **datuen tratamendua mugatzeko** nahiz **tratamenduaren aurka egiteko** ere. Eskubide horiek baliatzeko,...

Hauxe da, beraz, IBIL lantaldearen erabakia:

Datu pertsonalak babesteko araudiak jasotzen dituen eskubideak baliatzeari buruzko oharra euskaraz emateko, hemen eskaintzen den eredua erabiliko dugu.



Ebazten dut, Xedatzen dut... (performatiboak)

Nahiz eta urte askoan EHAA *Xedatu dut* / *Ebatzi dut*: idatzi izan den, azken boladan *Xedatzen dut*-, *Ebazten dut*:- eta abar ikusten dira. Zein erabili behar da?

IZOren erabakia

Gaur egun, gure artean adostasun handia dago horrelakoak aditz performatibotzat jotzeko. Beraz, *-t(z)en* egiteko gomendioa ematen dugu.

Aditz-forma gauzatzaileak edo performatiboak erabiliko dira Administrazioaren xedapenetan, xedapen-zatiaren atariko formula gisa: *agintzen dut, xedatzen dut, ebazten dut...*



En nombre y representación

Nola esan behar dugu euskaraz *en nombre y representación*?

IZOren erabakia

Gaztelaniazko esamolde horren ordain gisa, gure itzulpenetan gehienbat molde hauek erabili izan ditugu:

1. “-en izenean eta ordezkaritzan”
2. “-en izenean eta ordezkari”
3. “-en izenean eta (haren) ordezkari gisa”
4. “-en izenean eta hura ordezkatzuz”
5. “-en izenean eta ordeztz”

Gaia aztertutik, guk “-en izenean eta hura ordezkatzuz” proposatzen dugu.

en nombre y representación = -en izenean eta hura ordezkatzuz



Helbideak

Helbideak nola idatzi behar dira euskaraz? Modu askotan agertzen dira idatzita. Atari-zenbakiaren aurretik koma jarri behar da?, solairua eta atea nola lotu behar dira?, eta posta-kodearen eta herriaren artean ezer idatzi behar da?

IBILen erabakia

Guk molde hauek gomendatzen ditugu:

- *Donostia kalea 1*
- *Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)*
- *Larrauri Mendotxe bidea 18, Erandio (Bizkaia)*

Eta, solairua adierazteko, ordinalak erabiltzea gomendatzen dugu:

- *Kale Nagusia 85, 6. D, Agurain (Araba)*

Helbideak honela eman:

Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz (Araba)
Kale Nagusia 85, 6. D, 01200 Agurain (Araba)



Honako hau (kataforak)

Erredundantetzat jotzen da *honako (XXX) hau*. Eta testuak halakoz betetzen zaizkigu, baina, gehienetan, aski da *hau*.

Ley XXXX/20XX, de XX de XXXXXX, por la que se modifica el Real Decreto YYYY/20YY, de YY de YYYYYY, por el que se establece...

XXXX/20XX Legea, XXXXXXren XX(e)koa, errege-dekretu hau aldatzen duena: YYYY/20YY Errege Dekretua, YYYYYYren YY(e)koa, zeinaren bidez...

Gomendioak gomendio, aurretik argiago edo nabarmenago markatu nahi izanez gero, *honako* izenlagun fatikoa balia daiteke, baina harekin batean *hau* erakusle kataforikoa erabiltzea gomendatzen dugu. Esaterako, *honako errege-dekretu hau* edo *honako lege hau* hobesten ditugu, eta ez *honako errege-dekretua* edo *honako legea* formulak.

Bestalde, *hurrengo*, *ondorengo*, *ondoko* edo *honakoa* ez erabiltzea gomendatzen dugu (*honako*) *hau* formularen ordezt.

Hau da, beraz, IBIL lantaldearen erabakia:

Ahal dela, *honako (XXX) hau* barik, *(XXX) hau* erabiliko dugu.
Honako erabiliz gero, harekin batera *hau/hauek* erakuslea erabiltzea gomendatzen dugu.
(Honako) hau formularen ordezt, ez erabili honelakorik: *ondorengo*, *ondoko*, *hurrengo*...



Huts-zuzenketa

Huts-zuzenketetan erabiltzen den formula bateratzea erabaki dugu, euskaraz hainbat modutara ikusi baitugu. Beraz, hau erabaki dugu:

Huts-zuzenketa idatziko dugu, ez hutsen zuzenketa, ez akats-zuzenketa...

Eta testu barruan honela idatziko dugu:

En la página 31304, artículo 4.2, donde dice «... el artículo 210 de dicha ley...», debe decir «... el artículo 211 de dicha ley...».

31304. orrialdean, 4.2 artikuluan, hau dio: «... lege horren 210. artikulua...». Baina hau esan behar du: «... lege horren 211. artikulua...».



Izen berezi batez eta izen deskribatzaile batez osaturiko sintagmak

Izen berezi batez eta izen deskribatzaile batez osaturiko erakunde, entitate, plan, programa eta halakoen idazkeraz ari garela, nola lotu behar dira erakunde edo dena delako horren izena eta ondoren datorren azalpen moduko izendapena?

Bi elementu horiek lotzeko, orain arte hainbat estrategia edo bide erabiltzen ditugula ikusi dugu:

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea (marratxo txikia)

Osalan, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea (koma)

Osalan Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea (markarik ez)

Osalan – Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea (marra ertaina)

Lehenengo bi aukerak desagokitzat jotzen ditugu; izan ere, marratxo txikia, euskaraz, hitz-elkarketarako erabiltzen da, eta hori ez da sortu behar dugun egitura; koma erabilia, berriz, aposizioa sortuko genuke eta koma pareta beharko litzateke, baina ez da oso praktikoa deklinatzeko eta.

Lotura horiek bideratzeko, askotan, nahikoa izaten da zuzenean lotzea bi osagaiak (izen berezia eta izen deskribatzailea), inolako markarik gabe. Guztiarekin ere, markaren baten beharra hautemanetz gero, egokiena marra ertaina da (Control tekla eta zenbakizko teklatura – tekla) aurretik eta atzetik zuriune bana erabilia.

Hauxe da, beraz, IBIL lantaldearen erabakia:

Honela idatziko ditugu izen berezi batez eta izen deskribatzaile batez osaturiko erakunde, entitate, plan, programa eta abarrekoak:

Ihobe SA Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa

Izen bereziaren ezaugarriengatik lotura-bide argiagoaren beharra sumatuz gero, marra ertaina tartekatuko dugu, albo banatan zuriuneak dituela:

Gogora – Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua



Lege-izenak nola eman

Ez dakit nola antolatu lege-izen baten osagaiak. Lehenengo, gaia; gero, urtea...?

IZOren erabakia

Zerrenda batean agertzen bada lege-izen hori, zuzena da honela ematea: *6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa*.

Baina, testu barruan, kasu bakoitzean ikusi behar da nola jokatu. Hona hemen aukera batzuk:

- a. Gaia laburra bada: lehenengo, legearen gaia; gero, legearen data eta zenbakia, biak ere parentesi artean. Batzuetan ez da zertan parentesia erabili data eta zenbakia emateko, baina parentesia erabiltzea erabakiz gero, honela eman daiteke: *Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea (uztailaren 6ko 6/1989 Legea)* edo *Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea (6/1989, uztailaren 6koa)*.
- b. Gaia oso luzea bada: lehenengo, legearen data eta zenbakia; gero, legearen gaia, parentesi artean. Alegia: *azaroaren 25eko 27/1983 Legea (Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen Arteko Harremanei buruzkoa)*.

Eta, jakina, kasuan-kasuan ikusi beharko da parentesi barruko tarteki horiek non sartu. *Legea* absolutiboan badago, ez da arazorik sortzen, baina, beste kasu batzuetan, itzultzaileak ikusiko du non sartu tarteki hori; edo sintagmaren ondoren, edo esaldiaren amaieran...

Bestalde, legearen datan, hilabetea eta eguna agertzen dira; hori dela eta, euskaraz urtea ere badago jartzea, gaia laburra nahiz luzea delarik: *azaroaren 25eko 27/1983 Legea -> 1983ko azaroaren 25eko 27/1983 Legea*

a) Lege-izena zerrenda batean badago, honela jokatuko dugu:

6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.

b) Testu barruan agertzen bada lege-izena, bi kasu bereizten ditugu:

- **Gaia laburra bada:** *Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea (uztailaren 6ko 6/1989 Legea)* edo *Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea (6/1989, uztailaren 6koa)*.
- **Gaia oso luzea bada:** *azaroaren 25eko 27/1983 Legea (Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen Arteko Harremanei buruzkoa)*



Pertsona hizkera inklusiboan

Gaztelaniaz, hizkera inklusiboa erabiltzeko, *persona responsable*, *persona interesada*, *persona ciudadana*, *persona usuaria*, *persona consumidora*, *persona titular* eta gisa horretako formulak erabiltzen dituzte azkenaldiko testuetan. Euskaraz, zenbaitetan, hitzez hitz egiten dugu itzulpena, eta, gutxienetan bada ere, *pertsona arduradun*, *pertsona interesdun* eta haien gisakoak jartzen ditugu. Baina *pertsona* izena erabiltzea alferrikakoa da, euskaraz ez baitugu (kasu honetan) generoaren arazo hori. Esan beharrekoa adierazteko nahikoa da *arduradun*, *interesdun*, *herritar*, *erabiltzaile*, *kontsumitzaile* edo *titular* erabiltzea.

la persona responsable del plan: planaren arduraduna
personas ciudadanas de un estado miembro: estatu kide bateko herritarak
persona interesada: interesdun
persona usuaria: erabiltzaile
persona consumidora: kontsumitzaile

Persona titular esapidearen kasuan, euskaraz, *pertsona* jartzea alferrik izateaz gain, *titular* bera ere sobera egon daiteke batzuetan, aski izan baitaiteke honela ematea:

la persona titular de la Dirección de Turismo y Hostelería: Turismo eta Ostalaritza **Zuzendaritzako** (~~*pertsona*~~) **titularra** = Turismo eta Ostalaritzako zuzendaria

la persona titular del Departamento: Saileko (~~*pertsona*~~) **titularra** = sailburua

Hauxe da, beraz, IBIL lantaldearen erabakia:

Gaztelaniazko *persona responsable*, *persona interesada* eta gisa horretako formulak itzultzean, euskaraz ez dugu *pertsona* hitza erabiliko, baizik eta *arduradun*, *interesdun* edo dagokiona soilik, gaizki-ulertuentzat lekurik utzi gabe, betiere.

Gaztelaniazko *persona titular* itzultzean ere, euskaraz ez dugu *pertsona* hitza erabiliko, baizik eta *titular*. Kasu batzuetan *titular* bera ere kendu daiteke, garbi badago noren erreferentzia den (sailburua, zuzendaria...). Baina, zalantza bat izanez gero, zuhurrena *titular* erabiltzea da.



-ri dagokionez, -ren kasuan alferrikakoak

Gehiegi erabiltzen ditugu testu administratiboetan, askotan gaztelaniazko kalko ustelak direla jabetu gabe.

IZOren erabakia

Sarri, gaztelaniazko esapidea imitatuz, alferrikako egiturak sortzen ditugu:

— *Epaimahaiari dagokionez, zazpi kidek osatzen dute. (?)*

Epaimahaiari dagokionez, formalki adizlaguna bada ere, funtzio aldetik mintzagai hutsa da; alegia, beste honen ordain desegoki bihurria:

— *Epaimahaia zazpi kidek osatzen dute.*

Berdin gertatzen da *-ren kasuan* esapidearekin ere:

— *Hegan doazen hegaztien kasuan, ehiztari bizkorrenak eramango ditu. (?)*

— *Hegan doazen hegaztiak ehiztari bizkorrenak eramango ditu.*

-ri dagokionez eta -ren kasuan esamoldeak, sarritan, gaztelaniazko formen kalko desegokiak dira eta, beraz, baztertzekoak



Sin perjuicio

Nola esan beharko genuke euskaraz *sin perjuicio de*?

IZOren erabakia

Garai batean, sistematikoki *kaltetan joan gabe* eta *kalterik gabe* formulak erabiltzen ziren; haien ordezt, beste formula batzuk hobesten ditugu, jostera eta esanahia ere argiago adierazten baitituzte, hala nola *galarazi gabe*, *ezertan galarazi gabe*, *alde batera utzi gabe*, *gorabehera*, *hala ere*, *nolanahi ere*, *ezertan eragotzi gabe*, *horrek ez du kentzen*, *hargatik eragotzi gabe*, *nahiz eta*, *arren*, *bada ere*... Zenbait kasutan, ordea, *kaltetan joan gabe* eta *kalterik gabe* formulak ere egokiak izan litezke.

Kaltetan joan gabe eta kalterik gabe formulak okerrak direnean, haien ordezt beste hauek erabiltzea gomendatzen da: galarazi gabe, ezertan galarazi gabe, alde batera utzi gabe, gorabehera, hala ere, nolanahi ere, ezertan eragotzi gabe, horrek ez du kentzen, hargatik eragotzi gabe, nahiz eta, arren edo bada ere



Terminologia

Administración pública

Nola da euskaraz *Administración pública*?

IZOren erabakia

Publiko erabiltzea gomendatzen dugu, eta ez *herri*-, aspaldi honetan nagusitu den joerarekin bat etorriz.

Aspaldi honetan nagusitu den joerarekin bat etorriz, *publiko* erabiltzea gomendatzen da, eta ez *herri*-.



Disposiciones

Nola eman behar dira euskaraz *disposición adicional*, *transitoria*, *derogatoria* eta *final*?

IZOren erabakia

Honela eman behar dira: *xedapen gehigarria*, *xedapen iragankorra*, *hirugarren xedapen indargabetzailea* eta *azken xedapena*. Baina, ordinala ezarriz gero, honela eman beharko ditugu: *lehenengo xedapen gehigarria*, *bigarren xedapen iragankorra*, *hirugarren xedapen indargabetzailea* eta *azken xedapenetako lehenengoa*.

Alegia, lehenengo hiru xedapen motetarako, molde jakin bat erabili behar da; *azken* tartean sartzen bada, ordea, molde guztiz aldatzen da (**bigarren azken xedapena*). Bistan denez, ordinalaren ondoren *azken* idatzita ikusteak arazoak ematen ditu ulertzeko; honela idatziko dugu: *azken xedapenetako bigarrena*.

disposición adicional = xedapen gehigarria
disposición transitoria = xedapen iragankorra
disposición derogatoria = xedapen indargabetzailea
disposición final = azken xedapena





Eficacia/eficiencia/efectividad

Zuzenbidearen eremuan, botere publikoen jardunaren bi printzipio aipatzen dira sarri: alde batetik, *eficacia*, ezarritako helburuen eta lortutako emaitzen arteko erlazioa adierazteko, eta, bestetik, *eficiencia*, lortutako emaitzen eta erabilitako baliabideen arteko erlazioa adierazteko. *Eficacia/eficiencia* bikotearekin batera, beste printzipio bat ere aipatzen da zenbaitetan: *efectividad* delakoa, zeina erabiltzen baita, alde batetik, *eficacia* eta *eficiencia* terminoen batura adierazteko, eta, bestetik, egintza juridikoak berez duen baliozkotasuna eta ondorioak sortzeko gaitasuna adierazteko.

Kontzeptualizazio hori atxikitzea eskatzen duten testuetan hiru terminoak bereizi egin behar direnez, hiru izendapen behar ditugu.

Erabileremu espezializatuetatik kanpo, *eficacia* eta *efectividad* sinonimoak dira askotan. Hortaz, espezializatu gabeko testuetan, hau da, bereizketa egitea eskatzen ez dutenetan, IBIL lantaldeak ondo ikusten du *eraginkortasun* erabiltzea, bai *eficacia* izendatzeko, bai *efectividad* izendatzeko.

Hala ere, gaztelaniazko *eficacia*, *eficiencia* eta *efectividad* terminoak bereizi behar direnean, honela jokatu du IZOk:

eficacia* = *efikazia
eficiencia* = *efizientzia
efectividad* = *eraginkortasun

Bereizketa egin beharrik ez dagoenean, berriz, lasaiago jokatu daiteke, eta *eraginkortasun* erabili, bai *eficacia* izendatzeko, bai *efectividad* izendatzeko.



Europar Batasunaren legegintzako egintzak izendatzeko irizpideak

Hauetara Europa Batasunaren legegintzako egintzak: erregelamenduak, zuzentarauak, erabakiak eta aurrekontuak.

Egintza horiek izendatzeko, arau batzuk bete behar dira, eta, esparru horretan, bi aro hauek bereizten dira: 2015eko urtarrilaren 1a artekoa eta 2015eko urtarrilaren 1az geroztikoa. Segidan, xehekiago:

- a) 2015eko urtarrilaren 1a arteko egintzak izendatzeko moldeak desberdinak ziren:

Lehenik eta behin, kontuan izan behar da aldatu egin dela, behin baino gehiagotan, eremuaren izena: hasiera batean, *Europako Ekonomia Erkidegoa (EEE)* zen; gero, *Europako Erkidegoa (EE)* izendatu zuten, eta Lisboako Tratatua indarrean jarri zenean *Europar Batasuna (EB)* bihurtu zen.

2009an Lisboako Tratatua onartu zen, eta, handik aurrera, EB da egintzen eremua; gerta daiteke, ordea, itzulgairen batean data hori baino lehenagoko egintzaren bat aitatu behar izatea. Halakoetan, gogoan izan behar da eremuak aldi bakoitzean izan duen izena. Alegia:

$$CEE = EEE / CE = EE / UE = EB$$

Egintzak izendatzeko hurrenkera ere bestelakoa zen. Beraz, 2015eko urtarrilaren 1a baino lehenagoko egintzak izendatu behar izanez gero, kasuan-kasuan jokatu behar da.

- b) 2015eko urtarrilaren 1az geroztiko egintzak egitura honen arabera izendatu behar dira:

(eremua) urtea/zenbakia egintza. Adibidez: (EB) 2024/27 Erregelamendua

Libro de Estilo Interinstitucional argitalpenean (60. or.) ikusi dugunez, Europar Batasuneko hizkuntza ofizialek zorrotz eusten diote egitura edo bloke horri, are euskararen antzeko ordenamendua duten hizkuntzek ere. Beraz, guk ere egitura hori erabiliko genuke, euskararen ordenamendua errespetatuta. Adibidez:

(EB) 2020/1272 Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, (2020ko) abenduaren 16koa,ri buruzkoa.

(EB) 2020/1272 Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, (2020ko) abenduaren 16koa,ri buruzkoa.

Hauetara, beraz, IBIL lantaldearen erabakia:

Europar Batasunaren legegintzako egintzak izendatzeko, irizpide hau erabiliko dugu:

2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako egintzetarako:

(eremua) urtea/zenbakia egintza

Adibidez: (EB) 2024/27 Erregelamendua

Oharra: 2015eko urtarrilaren 1a baino lehenagoko egintzak izendatzeko, hurrenkera bat baino gehiago erabili izan da, eta eremuaren izendapena ere aldatuz joan da ($CEE = EEE / CE = EE / UE = EB$); beraz, aldi horretako egintzak aipatzean, orduko moldea erabiliko dugu, hots, kasuan-kasuan dagokion hurrenkera eta eremu-izendapena:

Reglamento nº 17 = 17. Erregelamendua

Reglamento nº 1009/67/CEE = 1009/67/EEE Erregelamendua

Reglamento (CEE) nº 1470/68 = (EEE) 1470/68 Erregelamendua



Encomienda de gestión

Termino honen inguruko zalantza 39/2015 eta 40/2015 legeak euskaratzean sortu da.

Kudeaketa-gomendio hobesten dugu, baina egia da testu barruan oso ondo etor litekeela *kudeatzeko gomendio*; hori dela eta, biak ontzat hartzen ditugu: *kudeaketa-gomendio* eta *kudeatzeko gomendio*.

Encomendar esateko *gomendatu* egitea aholkatzen dugu, baina beste batzuk ere onargarriak dira: *(kudeaketa-)gomendio egin*, *(kudeaketa-)gomendio eman*, *-en gomendio utzi...*

Hori guztia kontuan harturik, IBIL lantaldeak honela egitea proposatzen du:

encomienda de gestión = kudeaketa-gomendio
encomendar = gomendatu
actividad encomendada = gomendatutako jarduera
órgano encomendante = (kudeaketa-)gomendioa egi(te)n duen organo
órgano encomendado = (kudeaketa-)gomendioa jaso(tzen) duen organo



Impacto (económico / de género / presupuestario...) // inpaktu / ondorio / eragin

Termino horrek, 39/2015 eta 40/2015 legeetan dituen agerpenak kontuan harturik, zein du euskal ordainik egokiena?

“Inpaktua” eta “eragina” ez dira gauza bera. “Inpaktua”k kolpearen esanahia du eta gehienbat ingurumenari buruzko gaiekin lotuta agertzen da. Bi lege horietan nola agertzen den ikusirik, IBIL lantaldeak uste du “eragin” dela egokiena, “impacto” (económico / de género / presupuestario...) esateko. Beraz, honela ematea proposatzen dugu:

39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena:

impacto de las normas / arauen eragina

impacto significativo en la actividad económica / eragin nabarmena jarduera ekonomikoan

40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena:

Análisis de Impacto Normativo / arau-eraginaren azterketa

impacto económico / eragin ekonomiko

impacto significativo en la actividad económica / eragin nabarmena jarduera ekonomikoan

Impacto económico y presupuestario / ekonomian eta aurrekontuan duen eragina

impacto sobre las pequeñas y medianas empresas / enpresa txiki eta ertainen gaineko eragin

Impacto por razón de género / generoaren arloko eragin

previsión de impacto / eraginaren aurreikuspen

***Inpaktuak kolpearen esanahia du eta gehienbat ingurumenarekin lotuta dago.
Eragin da egokiena impacto (económico / de género / presupuestario...) adierazteko***



Jaurlaritzako Kontseilua ala Gobernu Kontseilua?

Consejo de Gobierno (del Gobierno Vasco) esateko, bi euskal ordain ditugu: *Jaurlaritzako Kontseilua* eta *Gobernu Kontseilua*. Bi izenak nahas-mahas daude sarean, eta Eusko Jaurlaritzak berak ere bata zein bestea darabil. Bi horietako zein erabili behar dugu?

IZOren erabakia

Gobernu Kontseilua erabiltzea erabaki dugu, eta oso-osorik esan nahi bada, *Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseilua*.

Bide batez, beste kontu bat atera nahi dugu hemen:

Maiz, *Gobernu Kontseiluaren bilera* esateko, *Gobernu Kontseilua* bakarrik ageri da testuetan, *bilera* gabe.

Honela agertzen da, adibidez:

— "Halako eguneko Gobernu Kontseiluan, hau erabaki dute".

Baina hau esan nahi dugu benetan:

— "Gobernu Kontseiluaren halako eguneko bileran, hau erabaki dute".

Ez dakigu erdararen eragina den, erdaraz ere ikusten baitira halako esaldiak, baina ez dirudi oso zuzenak direnik.

Gainera, ez da *Gobernu Kontseilu* terminoarekin bakarrik gertatzen: batzordeekin ere jokatu izan da horrela ("halako eguneko batzordea...", "batzordearen halako eguneko bilera" esan beharrean).

Gure ustez, saihestekoa da jokabide hori.

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseilua
Gobernu Kontseilua



Nola izendatu lege-xedapenen zatiak?

Xedapen-zatiak izendatzeko sistema bat baino gehiago erabiltzen dira, bai euskaraz, bai gaztelaniaz, eta azkenaldian erreferentzia bibliografiko esanguratsuak plazaratu dira estandarizazio bidean. Hori ikusirik, hauxe da

IZOren erabakia

Artikulu baten zati zenbakidunari *apartatu* deituko diogu, eta hierarkian hurren dagoenari, *letra*. Letra horiek, kasu gutxi batzuetan, *zenbaki* ordinala izaten dute hurrengo azpiko kategoria.

Eskema horretatik kanpoko lerroalde markatu gabeari, *paragrafo* deituko diogu.

Komeni da gogoratzea, azkenik, horrelako segida luze samarretan oso egokia dela «idazkera labur beheranzkoa» deritzana erabiltzea, non izen-sintagmaren lehen elementuak gobernatzen duen hitz-kate osoa. Alegia:

- «13. artikulua 2. apartatuko c) letrak dioenez,...» idatzi ordez,
«13.2.c) artikulua dioenez,...»

Lege-xedapenen zatiak

Titulua

Kapitulua

Atala

Artikulu

Apartatua

Letra

(Zenbakia)



Normativa comunitaria

Nola esan behar dugu euskaraz *normativa comunitaria*: *Europako Erkidegoko araudi* ala *Europar Batasuneko araudi*?

IZOren erabakia

2009ko abenduaren 1ean, Lisboako Tratatua indarrean jarri zenean, *Europar Batasuna* terminoak ordu arteko *Europako Erkidegoa* ordezkatu zuen ondorio guztietarako, eta Nazioarteko Zuzenbideko subjektu gisa dagokion nortasun juridikoaz jabetu zen.

Guk, horrenbestez, ***Europar Batasuneko araudi*** gomendatzen dugu.

Oharra: *europar araudi* eta *araudi komunitario* ere hor daude, baina *Europar Batasuneko araudi* izendapena unibokoa da, eta, alde horretatik, hobestekoa iruditzen zaigu.

normativa comunitaria = Europar Batasuneko araudi



País Vasco nola eman euskaraz

País Vasco eta *Euskadi* erabiltzen dira gaztelaniaz gure erkidegoaren lurralde-eremua adierazteko. Baina, euskaraz, askoz eremu handiagoa hartzen du *Euskal Herria* izendapenak. *Euskadi* ere antzera ulertzen da. Orduan, nola eman behar ditugu euskaraz? *Euskal Autonomia Erkidegoa?*, *Euskadi?*...

IZOren erabakia

*País Vasco*ren erreferentzia hiru lurralde historikoak direnean, *Euskal Autonomia Erkidegoa* nahiz *EAE* emango genuke euskaraz.

***País Vasco*ren erreferentzia hiru lurralde historikoak direnean, *Euskal Autonomia Erkidegoa* nahiz *EAE* egingo dugu euskaraz**





Sektore publikoaren pertsonifikazio juridikoa

IZOren hizkuntza-irizpideak eguneratzen egiten ari garen lanean, *sektore publikoko figura juridikoak: organismo, ente, entidad* izenekoa zorroztu egin behar izan dugu, hasierako erabakiak sortu zituen zalantzak direla eta. Beraz, beheko zerrendan jasota geratzen den proposamena egiten dugu, IVAP barruan erabiltzeko. Gogoan izan proposamen hau sektore publikoko entitateak aipatu behar direnean erabiltzekoa dela, salbu eta daborduko finkatuta dauden izen berezietan. Zer ulertu behar da, baina, sektore publikotzat? Funtsean, Euskal Sektore Publikoaren Legeak (3/2022 Legeak), Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru Sektore Publiko Institutuzionalari buruzko Legeak (11/2019 Foru Legeak) eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legeak (40/2015 Legeak) ezartzen duten esparru instituzionala.

Hau da IBIL lantaldearen erabakia:

Gaztelania	Euskara
Administración general	Administrazio orokor
Administración institucional	Administrazio instituzional
Administración instrumental	Administrazio instrumental
Administración pública	Administrazio publiko
consorcio	partzuergo
ente	ente
ente institucional	ente instituzional
ente instrumental	ente instrumental
ente público de derecho privado	zuzenbide pribatuko ente publiko
entidad	entitate
entidad institucional	entitate instituzional
entidad instrumental	entitate instrumental
entidad local	toki-entitate
fundación	fundazio
institución	instituzio, erakunde
institucional	instituzional
instrumental	instrumental
organismo	organismo
organismo autónomo	organismo autonomo
organismo público	organismo publiko
organización	antolakunde
órgano	organo
órgano colegiado	kide anitzeko organo
sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi	Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publiko
sector público vasco	euskal sektore publiko
sociedad pública	sozietate publiko



Tutela / autotutela / curatela // tutoretza / babes

Zalantza hau ere 39/2015 eta 40/2015 legeak euskaratzean sortu zen.

Autotutela ez beste termino guztiak Euskaltermen jasota daude. Ez ditugu errepikatuko. Hona gure erabakia:

autotutela* (Administrazioaren ahala edo prerrogatiba) = *autobabes



Vasco/Vasca

Nola eman euskaraz *Administración vasca*, *ley vasca*... eta horrelakoak gure testuetan?

IZOren erabakia

Vasco/vascaren itzulpen zuzena eta automatikoa *euskal* da. Batzuetan, ordea, Euskal Autonomia Erkidegoari soilik dagokion zerbait izendatzeko, *vasco/vasca* erabiltzen dugu; halakoetan, zalantza sortzen da euskaraz nola eman: *euskal* ala *EAEko*...

Euskal egokia da erreferentzia hiru lurralde historikoak ez badira (esaterako, *sociedad vasca*, *música vasca*, *idiosincrasia vasca*...); horrelakoetan, *euskal* erabil liteke, izen horiek sortu zituenak zer esan nahi ote duen pentsatu gabe.

Baina argi badago *vasco/vascaren* erreferentzia hiru lurralde historikoak direla eta administrazio-egituraren barruko zerbaitez ari garela, *Euskal Autonomia Erkidegoa* nahiz *EAE* emango genuke euskaraz. Ildo horretatik, *Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa* (edo *EAEko Administrazioa*), *Euskal Autonomia Erkidegoko legea* (edo *EAEko legea*) eta gisa horretakoak erabiliko genituzke. Hortaz, *País Vasco*rekin bezalaxe jokatu genuke; alegia: *País Vasco*ren erreferentzia hiru lurralde historikoak direnean, hots, eremu politiko-administratibo honetaz ari denean, *Euskal Autonomia Erkidegoa* nahiz *EAE* emango genuke euskaraz.

Kontuan hartu, hala ere, badirela hiru lurralde historiko hauetako hainbat eta hainbat lege-testu eta erakunde, beren izenetan *euskal* dutenak; izendapen okerrak iruditu arren, errespetatu beharrekoak iruditzen zaizkigu.

1) *Vasco/vascaren* erreferentzia hiru lurralde historikoak ez direnean: *Euskal*

2) *Vasco/vascaren* erreferentzia hiru lurralde historikoak direnean eta administrazio-egituraren barruko zerbaitez ari garenean: *Euskal Autonomia Erkidegoa* nahiz *EAE*